

Eibarko Udalak Arte Eszenikoen inguruan tailerra antolatu du antzerki eta musikalaren mundu ikusgarrian murgiltzeko, haurren gaitasunak eta doaiak garatuz ondo pasatzen duten bitartean.

Tramitatzaileria: Haurreria eta Gazteria
Hartzaileak: LH 5. eta 6. mailakoentzat
16€ (Eibarren erroldatuak)
32€ (Eibartik kanpokoak)
Ikastaroaren ordainketa: Matrikula ordainketa bakar batean kobratuko da, erreziboa helbideratuta.

Eskaera egiteko tokia:
PEGORA, Herritarren Zerbitzurako Bulegoa.
Eskaera egiteko epea: otsailaren 18tik 27ra

Nork emango du: KAXA
Non: PORTALEAN 3.solairuan
Datak: Martxoak 9, 16, 23 eta 30
Ordutegiak:
LH 5-6: 17:00etatik 19:00etara

Ikasle kopurua: gutxienez 6 ikasle ikastaroa burutzeko eta gehienez 20 ikasle.
Ikastaroaren hizkuntza: euskaraz.

Aurkeztu beharreko agiriak:

“**IKASTAROAK: MATRIKULA ORRIA**” izeneko inprimakia behar bezala beteta (PEGORAn eta udal web orrian, www.eibar.eus/kultura eskuragarri).

Nortasun agiri nazionala eskatuko da emandako datuak egiaztatzeko.

Tutoreen kasuan, tutoretza egiaztatzen duen dokumentazioa.

Kudeaketa arauak:

Izena eman duten pertsonen kopurua ez bada heltzen ikastaroa emateko ezarritako gutxienerako ikasle-kopurura, ez da ikastarorik egingo. Abisua udalaren web orrian emango da (www.eibar.eus/kultura), **martxoaren 4ean**.

Izena eman duten pertsonen kopuruak ezarritako gutxienerako ikasle-kopurua gainditzen badu eta ezarritako gehienerako ikasle-kopurutik gorakoa ez bada, matrikula guztiak onartuko dira.

Matrikularako izena eman dutenen kopurua ezarritako gehienerako ikasle-kopurutik gorakoa bada, ikasleen aukeraketa zozketa bidez egingo da. **Zozketa Portalean egingo da**. Hona hemen zozketa-eguna eta ordua: **martxoaren 4ean 10:15ean**. Zozketa era honetan egingo da:

Zozketa egin aurretik ikastarorako izena eman duten pertsona guztiekin zerrenda bat egiten da alfabetoaren arabera ordenatuta; bakoitzari zenbaki bat emango zaio.

Zaku baten sartuko dira zenbaki guztiak eta zenbaki bakar bat ateratzen da.

Aukeratuko diren pertsonak zenbaki horretatik hasita elkarren hurreneko ondoren datozenak izango dira, plaza guztiak bete arte.

Onartu diren pertsonen izenekin zerrenda bat egingo da. Zerrenda hori PEGORAn eta udalaren web-gunean (www.eibar.eus/kultura), egongo da **martxoaren 4ean, 12:15etatik** aurrera. Zerrenda hori argitara ematen den unean sortzen da matrikularen zenbatekoa ordaintzeko obligazioa. Ikastaroa utzi edo ikastaroan baja ematen duen pertsonak ez du izango matrikularen zati proportzionala jasotzeko eskubiderik.

Informazio gehiago: 943 708 435 telefonoan